


Astekaria

BARREN

elgoi

Klaratarrak, bost mende otoitzean



azkue

Urria eta azaroan

jubilatuentzat **ESKEINTZA BEREZIA**

ikus

OPTIKA

San Frantzisko 16
Tel. 74 37 34

Betaurreko osoa
6.600 pta.

Betaurreko bifokalak
9.900 pta.

Gainontzeko produktuetan deskontuak

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Udaletxea)	741008
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

3 LAU HANKATAN

"Oso egungoa da bai, demokraziaren ikurriña bizkarrean hartuta, gure etxetik ahotsa altxatzea..." **Diana Perez de Albeniz**

6 ERREPORTAIA: KLARATARRAK, BOST MENDE OTOITZEAN

Gaur egun 800 urte bete dira Klaratarren lagundia sortu zela. Elgoibarren duela 460 urte sortu zen lehen komunitatea.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: APAIZEK ZELIBEAK IZAN BEHAR AL DUTE?

Txomin Zabaleta: "Defendatu nahi dudana aukerako zelibatoa da, ez inposatua."

J. Ansberto Esnaola: "Apaizak ezkonduko balira, ez litzateke berdina izango."

12 BERBETAN: Maite Vallejo

"Errosaixo kalean izugarritzko jaixak antolatzen zian".

14 KIROLA:

GAIA: 9 FUTBOL PARTIDU JOKATUKO DIRA ASTEBUKAERAN.

ELKARRIZKETA: **Pedro Mari Egaña "Mintxeta"**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

ERROTATXO: DROGOMENPEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO ELKARTEA

17 KULTURA

ERROSARIOKO AMABIRJINAREN JAIAK

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 1, larunbata: YUDEGO
- 2, igandea: YUDEGO
- 3, astelehena: YUDEGO
- 4, asteartea: BIDASOLO
- 5, asteazkena: BIDASOLO
- 6, osteguna: BIDASOLO

7, ostirala: BIDASOLO

OKINDEGIAK:

- 2, igandea: ZABALETA



HARRIGORRIGOIKO ERROTA BERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza

Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldegi
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua

Kazetaria

Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementería

Publizitatea

Nekane Etxaniz

Administrazioa

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Berto Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

Banaketa arduradunak

Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Inprimategia

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada:3.000 ale

Lege gordailua:SS-1.038/92

ISSN:1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

Etxetik hasi behar

Saltoka hasi ziren australiarrak pozaren pozez 2000rako joku olinpikoak aurrera eramateko aukeratuak izan zirela jakin zutenean. Txinatarrek, ordea, ez zuten hain ondo jaso kolpea, beraientzat espero baitzuten ohorea. Erabaki hori, azken hauek giza eskubideekiko erakusten duten errespetu ezari emandako erantzuna dela diote.


Oso egungoa da bai, demokraziaren ikurriña bizkarrean hartuta, gure etxetik ahotsa altxatzea hor kanpoan gertatzen diren barrabaskeriak salatzeke. Eta hor kanpoan diot, guretik zenbat eta urrunago, orduan eta errazago zaigulako garrasia botatzea.

Kontzertuak antolatzen dirua biltzeko, kontu korronteak zabaltzen ahal duenak ahal duena eman dezan. Bakoitzak bere kontzientzia garbitzen komeni zaion moduan.

Baina, hain urrutira begiratu beharra dago? Zergatik sinistarazi nahi digute mendebaldeko herrialdeok giza eskubideen defendatzaile porrokatuak garelako?

mundu zabalean? Ze, dirudienez, hemen ere erruduna zara legearen aurrean, kontrakoa ondo frogatzen den arte; eta ez naiz detektibe filme amerikar bati buruz ari. Ez naiz gure egoera beste leku aski ezagunetan ematen diren zapalkuntzekin parekatzeko intentzioarekin ari, ezta gutxiago ere. Ederki asko erakusten digute telebista etabarrek zein ondo bizi garen beraien aldean. Horrek, askotan, begia urrutiegi luzatzera bultzatzen gaituela uste dut halere, gure inguruan jasotzen dena ikusteko itsutuz.

Ingeles erretrau batek dio karitateak etxean hasi behar duela; borrokak ere bai, ziuraski. Nire eskubideak batzuei komeni zaienean bakarrik irekitzen den liburu batean gordetako hitzak bihurtu direla ikusten dut. Ikusi eta ikasi. Ze, legearen aurrean denok berdinak garelako egia bada, zergatik ez orduan informazio iturrien ahoan eta iritzi publikoaren buruan? Etxea ezin da teilatutik eraikitzen hasi; ezta kanpotik barrura garbitu ere.



*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak diruz
lagundutako aldizkaria*

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Rosario 34, 1 ezk. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

AITZ BIZKAR ARDOAK
ARDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA
Errosario 18
Tel. 74 02 37

Fotero
OKINDEGIA
OPILDEGIA
San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Euskarari erasorik ez

Eraso gogorak jasaten ari da Euskara Udaletxean aspaldi honetan. Duela urte t'erdi baino gehiago Elgoibarko Izarrak aurkezturiko begirale ikastaroak gauzatu gabe jarraitzen du, diru problemak direla medio.

Bake epailearen aukeraketan, PNV-k eta EA-k ez zuten kontutan eduki euskara, eta euskara gutxien zekiena aukeratua izan zen.

Euskara batzordeak jaien inguruan egindako barne idatziek ez dute ezertarako balio kultura batzordean.

Eztabaida luze baten ondoren, aurtengo urtarilerako Euskara Batzordeak Udal Euskara Ordenantzen eztabaida bukaturazuen. Orduetik hona Ordenantzagai hauek paralizatuta daude, PSOE-k jarritako errekurtsioa dela medio.

Mintxetako taberna, garbiketa eta mantentmentuaz arduratzeko Udaletxeak egindako oinarrietan euskaraz jakitea ez da aintzakotzat hartuko, PSOE-k eskatu eta PNV-k amore eman duelako.

Guztira ere kezkarriena, Euskera batzordeburu den Juan Mari Egueren plenoan postura hau defenditzen ikustea izan zen, nere ustez, larriena. Euskera kontutan hartuz gero, Elgoibarko biztanlegoaren % 50 diskriminatzen dela, ez dela legala (gezurra) eta halako perlak entzun behar izan genituen. Euskara, bigarren mailako tratua izateatik aparte, elkar trukerako arma bezala erabiltzen du PNV-k PSOEekin eta hori oso grabea iruditzen zaigu. Noiz arte Euskarari erasoka?

Pedro Mendizabal
HBko euskara zinegotzia

Egiak ez du kolorerik

Tristura, etsipena, amorrua da, azken urteotan San Bartolome jaietan gertatzen denaren aurrean sentitzen dudana; dena, burua erabili ordez, indarra erabiltzen duen jendea dagoelako, eta gainera, "askatasun" hitzaren babesean. Baina, lagunok, pertsona batek ez dauka askatasunaz hitzegiterik besteen askatasuna mugatzen duenean, nahiz eta jasotzen duen tratua zuzena ez izan.

Denok mundu honetan injustizien menpean gaude, baina haiei aurre egiteko ezin ditugu argumentoak hankaz gora jarri, itxaropenak erre, edo gorrotoa bota zauririk gabe geratu ezezik, arrazoiaren bidea itxita dagoela ere konturatuko den hesi baten kontra.

Asko kostatzen zaigu hitzegitea, arrazoiari eustea, entzutea eta aurrera jozteaz: zeruraino iritsiko den dorre bat eraiki nahi badu-

gu, askotan jausiko zaigu, baina ez dugu horregatik etsi behar, itxaropena garamatzen bidea luzea eta gogorra delako. Aitzitik, oso errez azaltzen dira oihiak, kolpeak, hotsak eta ukapenak, etsaiaren ahotsa entzun ez dadin: infernuraino iritsiko den zulo bat egiteari ekiten badiogu berehala iritsiko gara, ezerezeraino daraman bidea motza eta erraza delako; behe-rantz doan bide honetan, arma gisa erabiltzen diren harriak, kabinak eta kontainerrak suntsitzen dituen sua eta baita gorputzak zigortzen dituzten gomazko pilotak ere aurki ditzakegu.

Estali dezagun malkoaz egindako zulo hau, eta saia gaitezen zerbait sortzen beste zerbait desegin gabe, ea horrela konturatzen garen bide errezena ez dela beti zuzenena izaten. Hau bezalako ahalegin xumeak helmuga urrunagoak lor ditzaketena dira.


Alberto Iriondo



AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



ANCHUSTEGUI Sa

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68


Aste honetako erretratua **Josefina Irustak** laga digu.

Zein urtetan ateratakoa den ez dakigu baina San Fantzisko kalea duela "urte batzuk" bastante politagoa zela begibistakoa da.

Ezkerreko aldean ikusten den zutabedun eraikuntza gaur egun *Bankoa* dagoen tokian zegoen. Hori kentzea agindu zuenak ere...

OHARRA

Erretratu zaharren premia larrian gaude. Erretratu zaharrak ateratzen jarraitzea nahi dugu, baina horretarako zuen kolaborazioa beharrezkoa da. Astindu kajoi eta albur zaharrak eta etorri **BARRE**nera. Mila esker!!



CUANGUREN

3. ADINALDIA URRIAN ZEHAR



- Dohaineko begi berrikuspena
- Betaurrekoak kristal eta guzti, urruti edo gerturako **6.950**
- Bifokal betaurrekoak **9.900**

UZURI
OPTIKA
MULTIOPTICAS
San Frantzisko, 21 ☎74 03 59

DEI EGIZU ZURE BISITAREN EGUNA ZEHAZTEKO

Klaratarrak, bost mende otoitzean

San Bartolome elizatik ez oso urrun, Santa Klara auzoan, Klaratarren lagundia gainontzeko auzokideekin batera bizi da. Jainkoaren izenean Elizak aitorturiko betebherraren arabera zerua eta lurraren arteko bitartekari bailitz, mendiaren magalean, 1976. urtean komentu zaharra bota ondoren eraiki zuten berria. Gaurregun, 800 urte bete dira Klaratarren lagundia sortu zela. Elgoibarren duela 460 urte osatu zen klaratarren lehen komunitatea.



SOARTE

↳ 1976an egin zen komentu berria. Itxuraz, modernaogoa eta funtzionalagoa.

Tomas Larrañaga eta Martin Mendizabal frantziskotarrek diotenaren arabera, 1533 urtearen bueltan osatu zen Elgoibarren klaratarren lehen komunitatea: Oñatitik etorritako Bidaurretako komentuko hiru monjak eta herriko hiru monjagaik, Maria Gracia de Sarasuak, Maria Ibañez da Karkizanak eta Domenja de Larreategik. Fundatzailea Maria Ramos de Sarasua andrea izan zen, Pedro Gonzalez de Jausororen alarguna. Aintzinako komentua eta eliza, fundatzailearen 4 etxeak egokituz egin ziren: dorrea eta 3 etxeak, ortuak barne.

Monjek bi alditan egin behar izan zuten ihes komentutik, gerrak zirela eta. Behin, 1794. urtean izan zen, tropa frantsesak sartu zirenean. Bi urte beranduago

**1957.ean,
Erlijosoen
Kongregazioak
neskentzako
eskola
irekitzeko
baimena eman
zuen. Eskolak
1973. urteko
ekaineko
ikasturte
bukaera arte
iraun zuen.**

arte ez ziren monjak komentura itzuli. Eta bestea, 1937. urtean kañoiez komentua zulatu zuteneko aldia izan zen. Oraingo honetan Azkoitiko klaratarren komentuan topatu zuten babeslekua.

1957. urtean, Erlijosoen Kongregazioak neskentzako eskola irekitzeko baimena eman zuen. Lehenago, Mendizabalen desamortizazioen ostean, herriko neskei oinarritzko hezkuntza irakasteko eskola izana zuten monjek. Komunitateak komentua erdia eta ortuak, ikasleen patioa eraikitzeko eman zituen eta obra Udaletxearen laguntzaz burutu zen. Santa Klarako monjen eskola 1957. urteko uztailaren 20an inauguratu zen. Eskolaurre-rako eta oinarritzko hezkuntzarako 4 ikasgela zituen. Kontabilitatea, mekanogra-



1957. urtea. Uniformez jantzita, Santa Klarako eskolaren inaugurazio egunean ateratako argazkia.

fia, takigrafia, esku lanak eta musika klaseak ematen ziren eta urtez urte ikasturteak gehituz joan ziren, oinarriko batxillergoaren 4 ikasturteak osatu arte. Eskolak 1973. urteko ekaineko ikasturte bukaera arte iraun zuen.

Herria zabaltzen eta handitzen zihoan heinean, komentu berria eraikitzeko asmoa sortu zen. Komentu zaharra zegoen tokitik gertu, txikiagoa eta funtzionalagoa eta garai berriei hobeto egokitzen dena. 1976. urteko abenduaren 18an, azken agurra egin zitzaion komentu zaharrari eta hurrengo egu-

nean, monjek komentu berria estreinatu zuten. Eraikuntza askoz modernoago honek eliza bat, apaizaren etxea, 20 gela, erizain gela eta otoitz leku bat dauzka.

Gaur egungo bizimodua

Klausurako monjei buruz, beti entzun izan da mundutik at eta errealtateari bizkarra emanez bizi direla. Santa Klarako komentuko buru den Maria Jesusek Vaticanoko II. Kontzilioaz geroztik gauzak erabat aldatu direla esan digu. Beraien arauak, gizartean sartzeko eta jabetza guztiak gainontzekoei begira edukitzeko

esaten dute. Esaterako, "Proyecto Hombre"koak bertara joaten dira astebukaera pasatzera hala eskatzen dutenean edota herriko monitore talderen batek astebukaera pasatzera joan nahiko balu bertoko ospederia zabalik izango du. Otoitz taldeek eta beste talde batzuek, *Alcoholicos Anonimos* esaterako, bertan egiten dituzte bilerak.

Santa Klarako monjek, lau orduz egiten dute otoitz egunean eta gainontzeko orduak lanean eta beste zeregin batzuetan pasatzen dituzte. Beraien bizimodua Sigma eta Lagun lantegiek ematen dien lanetik ateratzen dute. Eskola itxi zenetik hauxe da bizibide nagusia. Egunean bost bat orduz jarduten dute lanean. Gainontzeko orduak elkarteko bizitza sakontzen eta lantzen ematen dituzte. Igandean, meza ospatu ondoren, beste herritarrek bezala, jai egiten dute.

Gaur egun 11 monja bizi dira komentuan. Kopuru murriztua denez, Oñatiko Santa Ana komentukoekin harreman estuak dituzte elkar ezagutzeko eta laguntzeko; edota noizbait, hala beharko balitz, bat egiteko.

Santa Klarako monjek, lau orduz egiten dute otoitz egunean eta gainontzeko orduak lanean eta beste zeregin batzuetan pasatzen dituzte.



SOARTE

Lehen gehiago baziren ere, gaur 11 monja bizi dira komentuan.

Apaizek zelibeak izan behar al dute?

Zelibatoa bai ala ez, hau da gaia. Ez da gai erraza gaur tokatu zaidana eta are gutxiago defendatu behar dudan aldea. Jakina denez gero, eztabaida zor dezakeen gaia da, alde eta aurka daudenen artean. Orain dela gutxi apaiz ezkonduak beraien kongresua izan dute. Nere ustez denok daukagu gure iritzia edo postura azaltzeko eta defendatzeko eskubidea. Gai honi buruz oso jakintsua ez izan arren, nere iritzia azaltzen saiatuko naiz baita honen arrazoia ere.



Aspalditik datoren gauza bat da. Denok dakigun bezala apaiza izateko baldintzetariko bat, ezkongabea izatea da, eta hau aldatuko balitz, edo hobeto esanda, apaizak ezkonduko balira, ez litzateke berdina izango.

Baldintza hau ez dago nolana jarrita, eta apaiza izateko eduki behar den fedea eta bokazioa benetakoa dela adierazteko balio du.


Nere ustez, neurri hau, apaizek beraien zereginak hobeto bete ditzaten mesedegarria da. Familia horren hutsunea betetzeko hor dauka herria, biztanleen arazoak eta une onak,

guzti horrek familia bat osatzen du, bai onerako, bai txarrerako.

Elizak, historian zehar aldaketak izan ditu eta izango ditu, baina ez litzaidake gustatuko aldaketetarikoa bat hau izatea.

Lehen aipatu dudana bezala apaizen familia herria berada, eta abadea herriarengatik eta herriarentzat bizi da, ahal duenean lagunduz.

**Jose Ansberto
Esnaola**



Lerro hauek idaztean, neure buruari, artikulua zergatia galdetzen diot. Lekupen eta jarraipenik gabe, ez dut ulertzen Elizaren barne arazo honi buruz hitz egiteko eskaera.

Kristau elkarteetan, ez da gai hau lehen eta garrantzizkoena; hala ere idaztera animatu naiz, BARRENen eskutik ausnarpem sakon batzuen hasera izan daitekeen esperantzaz.

Baina ... zer da zelibatoa? Eskubide kanonikoari lotuaz, "ez ezkontzea" esan nahi du. Eta hau da Elizak apaizgaiari eskatzen diona gaur egun. Arrazoia, apaizaren prestakera oso bat izateko Eliz Elkartearikoa.

Garai guztiak ez dira berdinak, eta Eliza, gizon eta emakumez osatua dagoena, horren islada argia izan da. Bere historian zehar, egon dira garaiak, non, bai diakonu, apaiz eta gotzai ezkon zitezkeen. Guzti hau, Itun Berrian ikus dezakegu. (Ikus S. Paulok Titori 1, 5-6 eta Timoteori 3, 2; 3, 12).

Eskandalagarri irudituko al litzaidake, Elgoibarko gure Parrokian apaiz bat ezkondu eta familiarekin edukiko bagenu?

Komeniko litzateke gogoratzea, Jesusek judutar kulturaren sortutako iskanbila, bere taldean edozein baldintzako

gizonak edota emakumeak onartu zituenean. (Ikus Mt 9, 10-13 Lk 5, 27-32). Erromatarrek 16, 1-en ikus dezakegu, diakonisen existentzia.

Kontutan izatekoa da, ezkonduko apaizak, prestaketa handiago bat izango lukeela, ezkontz arazoak planteatzerakoan, ez bailuke teoriatik hitz egingo.


Ez nuke amaitu nahi zera esan gabe: bi argudioak, zelibatoaren aurkakoa eta aldekoa, onargarri eta funtsezko iruditzen zaizkidanez, ez al litzateke hobe apaiz zelibe eta ez zelibeak? Nire ustez, pertsonaren askatasuna da lehenengoa eta bere aukera librea izan beharko litzateke, bai zelibatoan, eta bai bizitzaren gai guztietan.

Hau da, beraz, artikulua honen bitartez defendatu nahi dudana: aukerako zelibatoa, ez inposatua.

Txomin Zabaleta


ETA ZURE USTEZ?

Apaizek zelibeak izan behar al dute?




Juanan Aizpitarte
28 urte, langabetua

Ondo iruditzen jata ezkontzia. Gizon edo emakume bezala normala iruditzen jat ezkondu edo elkarrekin bizi nahi izatea.




Santos Mugerza
71 urte, jubilatua

Onak izanez gero eta segitxu bere bidea ez dot gaizki ikusten ezkontzea. Kristautasuna euki bihar da, hori eukiz gero ez dao problemarik.



Urko Lizarralde
17 urte, langabetua

Ezkontzeko eskubidea daukabe beste edozein pertsonak bezela. Botoa gordetzea tontekeria dala iruditzen jata.



Rosario Garate
74 urte, jubilatua

Nik neretzako, nahixao dot ezkondu be; segun denborak eta gauzak, aldatu egin leike. Nik irizten diot ezkondu be dedikaziua konpletuagoa dala.



Adelina Nogales
60 urte, etxeandrea

Ez dakit, berdin zait. Ezkondu nahi badute ezkon daitezela. Norberak bere buruarekin nahi duena egin dezala.



Lorea Gorostiaga
25 urte, langabetua

Ez dakit zer traba moral ipintzen daben ez ezkontzeko, baina ez leuke horrela izan behar. Ez da inkompatiblea apaiz izatia ezkontziakin.

ALAITU
EZAZU
BEGIRADA
2.550 Pta.

MULTIOPTICAS
Beti Zuri Begira

Tania y Mauro betaureko berriak MULTIOPTICASen azkena zure begiak modaz jazteko. Beren diseinu erakargarri eta kalitatezkoak. Eta prezioa, harrigarria: 2.550 Pta.

Eta beti UZURI OPTIKAREN garantiarekin. Zatoz eta zerorrek froga ezazu



● Esmalte eta pintura

ikastaroa: Egur arte tailerrak, 30 orduko pintura ikastaroa antolatu du urriaren 4tik 26ra bitartean. Eta egun berean sutan egindako esmalte ikastaro bati ere emango zaio hasiera. Klaseak iluntzeko 6etatik 8etara izango dira. Izena emateko Egur arte tailerrera (Ubitarte z/g) jo 6etatik 8etara bitartean. Bestalde, urriaren 8an Egur eta Lurki arte lantegietan pasa den ikasturtean egindako eskulanean erakusketa hasiko da Kultur Etxean.



● Maltzaga-Urbina errepideari buruzko buzoia:

Interbentzio gune partizibatibo delakoen (IGP) aplikaziorako burutze faseek diotenez, buzoi bat ireki da elgoibartarrek gaiari buruzko proposamenak egin ahal izateko. Buzoian, Maltzaga-Urbina errepideari buruzko alternatibak edo proposamen ezberdinak utzi ahal izango dira. Deialdi hau herriko elkarte, talde eta pertsona guztiei zuzendutakoa da. Buzoi hau Udaltzaingoaren bulegoetan egongo da urriaren 1etik 31ra arte, egunean 24 orduz zabalik egongo delarik.

● Piedrafita eta Panticosara

irteera: Morkaiko elkarteak Piedrafita eta Panticosara irteera antolatu du datozen urriaren 9, 10, 11 eta 12rako. Bazkideek 10.500 pezeta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 13.000 pezeta. Irteera ordua goizaldeko 5:30etan izango da Foruen plazan.

Gurutze Iantzi eta Xabier Kalparsororen heriotza salatzen duen Herri Bata-sunak grebarako deia egin zuen pasa den astelehenean, urriak 4. Industri iharduera normala izan bazen ere, zerbitzu eta irakaskuntza mailan lanuztea ia erabatekoa izan zen. Goizean goiz herriko dendak ateak zabaldu arren, goiza aurrera zihoan heinean denda eta taberna guztiak itxi egin ziren. HBk antolatuta protesta ekintza ugari burutu ziren egun osoan zehar.

3. adinekoentzako bidaiak

Gizarte Zerbitzuetako Ministeri-tzak 3. adinekoentzat 1993-94 opo-rren programa antolatu du. Programa honetan eskaintzen diren oportu-lekuak Bidaia Agentzien bitartez tramitatu-ko dira, Kanariar irlak eta Kultur Zirkuitoak ezik. Azken bi hauetarako txandak zozketa bidez emango dira, eta horretarako interesatuak berak bidali beharko ditu eskabideak 1993. urriaren 31a baino lehen helbide honetara: 10.483 postakutxatila Madrid.

Eskabide inprimakiak eta bidaiei buruzko informazioa Udaleko Gizarte Ongizate Sailean daude eskuragai. Tel: 74 37 36/ 74 10 08

Kamioi istripua autopistan

Pasa den asteartean, hilak 28, A-8 autopista itxita geratu zen Itziar eta Eibar bitartean hidrogenoa garraiatzen zuen kamioi batek su hartu baitzuen. Autopista bi norabideetan itxi behar izan zuten, 600 metrotako zabalera, kamioiak eztanda egiteko arriskua zuten eta. "Carbueros Metalicos" etxeko kamioia Bilborantz zihoan atzeko gurpilek su hartu zutenean. Aurkako norabidean zetorren kamioi gidari bat gertatutakoaz ohartu, eta abisua eman zuen Elgoibarko peajeon. Autopistaren itxierak gaue-ra arte iraun zuten erretentzioak eragin zituen 634 errepide nazionalen.

MITZ BIZKAR
— Taberna —
Errosario, 20.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

PETUNIA
Modak
Errosario 12, tel: 74 16 48

●● GURE GAIA ●●

kiliBARREN: hilero Mendarori buruzko informazioa

KiliBARREN mendarotarrek Mendarori buruz eginko mendarotarrentzako hilabetekaria da. Honoko hau Mendarori buruzko informazioaz egindako lehen gehigarria da eta abendura

bitartean, hilaren bukaeraro elgoiBARREN astekariko erdiko orrialdeetan agertuko da. Mendaroko Udalaren dirulaguntzaz egindakoa, KiliBARREN Mendaroko etxe guztietan banatuko da.



Mendaron gertatzen diren gorabehera guztiek KiliBARRENen oihartzuna izan dezaten saiaturko dira Ziortza Urbietza, Haritz Goikoetxea, Maria Longarte, Alaitz Vives, Iraide Loiola, Garbiñe Zabala eta Aingeru Gallastegi mendarotarrak. Aitor Etxeberria ilustrazio eta marrazkiez arduratuko da eta Mikel Garate argazki kamararekin unerik garrantzitsuenak hartzen ibiliko da. Udalaren aldetik, bertako Kultur teknikariak, Joseba Etxeberriak, herrian antolatzen diren ekintzen berri emango du eta elgoiBARREN eta KiliBARREN osatzen dutenen arteko lotura izango da.

Momentuz 10 mendarotar animatu dira KiliBARREN hilabetekarian parte hartzera. Dena den, aldizkaria mendarotar guztiei dago irekia eta gustura onartuko lituzke kolaboratzaileak.

Horregatik, Mendaroko herria osatzen duten elkarte, talde zein gizabanakoak kolaboratzaile izatera animatu nahi ditu KiliBARRENek, antolatzen diren ekintzei zein gertarenei buruzko informazioa Udaletxeari edota kolaboratzaile taldeari jakinaraziz. Era berean, elgoiBARREN astekaria ere mendarotar guztiei irekia dago eta edozein notiziaren berri emateko bertara zuzen daiteke.

●● IRITZIA ●●

Aurrera kiliBARREN

Duela hiruzpalau aste BARREN irakurtzen dugun guztiok, urritik aurrera Mendarori buruzko atal bat argitaratuko zela jakin ahal izan genuen. Benetan pozik irakurritako berria izan zen; nolabait, gure herriko kezkak zein notiziarik bitxienak isladatzeko aukera iruditu zitzaigulako, ezkutuan, isilean egon ordez, gure nortasun eta izakeraren berri azaltzeko ideia aproposa zelako.

Badirudi, eta askoren ustez horrela izango da, gure herria mendi artean dauden lau etxe eta mila eta lauhun biztanle ingurutara mugatzen dela. Talde honentzat ostera, gure "herri-txoa" hori baino zerbait gehiago da, oso jende gutxik ezagutzen dituen altxorak dituelarik. Nork ezagutzen du benetan gure herriaren historia, horrekin batera bere balore historikoak, aspaldiko ipuin zaharrak...? Denok ezagutzen al ditugu azken aldian kirol mailan egin diren aurrerapausoak eta dauden asmo berriak? Eta kulturalki zeintzuk dira hor inguruan mugitzen diren taldeak? Gure xedea, galdera hauei eta beste hainbesteri erantzuna ematea litzateke eta guzti hori, hain zuzen, BARRENekoek zabaldu diguten aukera ederrari esker beteko dugulakoan gaude. Lerro hauek aprobetxatuz gure eskerrik beroenak eman nahi genizkioke guregan konfidantza jarri duen orori eta idazteko zaletasuna dugunoi halako eskaintza eman digutenei.

Egun lau kimu bagera ere, bihar hamar izango gaituzuelakoan eta etzi hamabost izan gaitzkeen esperoan gelditzen gara. Udazken honetan, hortaz, ez beza orririk gal BARRENek eta erne daitezela kimuak arren. Aurrera beraz, kiliBARREN.

Maria Longarte, Iraide Loiola
eta Alaitz Vives

✓ Mendarori buruzko argazki bilduma

Aurten, Mendaro herria sortu zenetik hamar urte betetzen direla eta, Udalak beste ekintza batzuen artean, Mendaroko argazki zaharren erakusketa bat antolatzeko asmoa dauka. Horregatik, materiala dutenei, urriaren 31a baino lehen, Udaletxean utzi dezatela eskatzen zaie. Argazki guztiak bueltatu egingo dira erakusketa amaitu ondoren. Dena den, informazio gehiago nahi duenak 75 61 00 telefonora deitu dezake.


✓ Bertso afaria izango da Lizaso eta Egañarekin

Datorren urriaren 9an, larunbata, bertso afari bat izango da Aizpe elkartean gaueko 9etan. Bertso lanean Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña arituko dira. Afari honetarako izena eman nahi dutenek Aizpe elkartean egin ahal izango dute urriaren 3a baino lehen. Afari txartelaren prezioa 2.500 ptakoa da.

✓ Bideo emanaldiak Kultur etxean

Kurutzpe elkarteak antolatuta ostiralero bideo emanaldiak izango dira Kultur Etxean. Sarrera dohainik izango da eta pelikulak 9,30etan hasiko dira.

Partaidetza handia Kurutzpek antolatutako akanpandan



● Ostiraleko euriak ez zituen atzera bota kanpigzaleak.

Pasa den hilaren 17, 18 eta 19an, 45 pertsona inguruko partaidetzarekin, Larraitzera akanpada burutu zen. Lehenengo egunean giroak lagundu ez arren, gainerantzeko egunetan giro ona egin zuen, Kurutzpe E.K.ak programaturik zituen ekintza guztiak burutu ahal izan zirelarik. Ekintza nagusia larunbat goizeko

Txindokira igoera izan zen. Larunbat arratsaldean Larraitzeko sagardotegi batean afaria izan zen, igande arratsaldean Mendarora itzuli zelarik. Ekintza nahiz partaideen jokabidea oso baikortzat joa izan da. Hori horrela izanik, datorren urteko akanpandan pentsatzen hasiak dira antolatzaileak.

SARRERIA *Maria Angeles Azpiazu* **SARRERIA**

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 75 59 86

denetik

**OPARIAK
PASTELAK
ALDIZKARIAK
GOXOKIAK**

Azpilikueta, 18. ☎ 75 50 76 Mendaro

LEKU ONA

Taberna

**- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak**

Mendarozabal 13, Tel. 75 60 65

Lur komunalak

Dokumentu falta dela eta, oso zaila egiten da gai honi buruzko infomazio zehatza jasotzea. Dena dela, herriko zenbait pertsona nagusirekin hitz egin ondoren, lursail komunalei buruz zerbait gehiago jakitea lortu dugu.

Lur komunalen jatorria ez dago oso argi. Batzuen esanetan, andere aberats batek, Garagartzako Deba kaleko biztanleen probetxurako utzitako lurra dira.

Lur hauen kokapenez jabetzeko, lehenbizi, behar beharrezkoa da Garagartzak iraganean zuen egoera ezagutzea. Bi kaletan zegoen banatuta, Deba kalea eta Elgoibar kalea, tartean Kilimon erreka zegoelarik.

Lur komunalak, Oregi haitzetik Errementain baserriarino dauden zenbait lurrek osatzen dute, beraz, aintzinan Debako Udaletxearen menpe zeuden. Lur hauek zirela eta ez zirela, iskanbila asko sortu ziren elgoibartarren eta debarren artean. Eztabaidak 1882an bukatu ziren, Garagartza elgoibartarren eskuetara pasatzerakoan.

Lursail komunalen funtzionamendua kontrolatzeko herritarrek komisio bat antolatu zuten, "Arnogibel Komisioa". Betidanik, bertako kideen helburu nagusia behartsuei laguntza eskaintzearena izan da. Komisioak indar handia zuen, erabaki guztiak

antolatzen zituzten bileretan hartzen baitziren. Herritarrek lur hauek erabiltzeko lehenbizi komisioaren baimena lortu behar zuten. Eta baimenaren ordezkantitate txiki bat ordaintzen zioten komisioari. Diru hau komisioisten gastuetarako izaten zen.

Lur komunalak, artzaintzarako, egurgintzarako eta hargintzarako erabiltzen ziren.

Baina haserreak ere sortu ziren. Ez zen berdina Elgoibar kalean bizitzea ala Deba kalean bizitzea. Adibidez, Deba kalekoek Arnogibel mendiko egurra moztu ondoren burdia erabil zezaketen egurra kaleratzeko, Elgoibar kalekoek ordea, besoetan etxeratu behar zuten. Ezberdintasun honek iskanbila eta zigor asko sortarazi zituen.

Artzainek ere beraien arauak zituzten. Urtero errenta bat ordaindu behar zuten beraien abereek Arnogibel mendian larratu zituzten. Errenta berdina zen denentzat, baina Elgoibar kalekoek ezin zituzten ahuntzak libre utzi.

Ikusten dugunez, lur komunalen gaiak beti sortu izan du zeresanik, bai gure artean eta baita gure berraitonen artean ere.

Garbiñe Zabala



Anton Zubiaurre

- Zenbat urte alkatetzan? ■ Bi urte ta erdi.
- Alkate izateak duen alderik gogorrena? ■ Eguneroko lana; alkatetza eta lanbidea konbinatzea.
- Eta onena? ■ Satisfazio pertsonala, ahal den guztixa egiten bait dezu.
- Hamar urte hauetako lorpen garrantzitsuenak? ■ Ospitxala, industrialdea, ikastolia...
- Zure eskuetan balego, zer ezarriko zenuke Mendaron? ■ Polideportibua.
- Eta kendu? ■ Etxe zaharrak, berrixak egiteko.
- Zure hobya? ■ Futbola,... kirola orokorrian.
- Kilimoia ala Athletic-a? ■ Kilimoia.
- Mendaron etorkizunerako proiekturik? ■ Kanposantua zabaltzia, zaharren egoitza, Santa Anako parkia eta ikastola ingurua urbanizatzea.
- Alkate bezala zure ametsa? ■ Pakia, industrialdeak aberastasuna ekartzia eta politikak mendarotarron arteko adiskidantza ez haustea.

NAHIA

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 16. MENDARO Tel. 75 51 01

TOKI ALAI jatetxea

- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak

Goizeko 8etatik zabalik

Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72

Mendaroko hiru kultur talde lokalik gabe

Lilimoon rock taldea, *Leizarpe* espeleologi taldea eta *Kurutzpe* kultur elkarteak pasa den hilak 21etik egoitza sozialik gabe aurkitzen dira, abadetxean zituzten lokalek ez baitzituzten beharrezkoak diren segurtasun baldintzak betetzen.

Abadetxeak, hainbat urtetan kultur taldeen egoitza eta gazteen elkargune izan denak, honez gero bere atea itxi ditu. Momentuz, kul-



● Abadetxearen egoera nahiko kezagarria da.

tur talde ezberdinek ez dutela iragarri arren, beraien lan filosofia eta lokalak beharrean aurkitzen direla salatu dute.

■ **Getariara bizikletaz**
Pasa den hilaren 11an, Kurutzpe kultur elkarteak antolatutako, irteera zikloturista burutu zen. Hau hirugarren urtea da irteera hau burutzen dela. Itziar gaineko sprint-ek, Getariako bainu hotzek eta umore onak markatu zuten berau. Bertako partaideek behin Mendarora iritsita lehertuta zeudela aitortu arren, hurrengo irteerara joateko gogoia adierazi zuten.

Urriak 2 larunbata

4,30: FUTBOLA

Kilimon-Beti gazte
Ospas-gain zelaian

Urriak 4 astelehena

2,30: YOGA IKASTAROA

Mendaroko emakume taldeak antolatuta.
Izen ematea: Sastrierian eta botikan.

Urriak 7 Osteguna

3,00: HITZALDIA

Gaia: Familia
Mendaroko emakume taldeak antolatuta.

Urriak 9 larunbata

21,00: BERTSO AFARIA

Tokia: Aizpe elkarte
Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.
Prezioa: 2.500

Urriak 14 osteguna

19,00: EUKAL DANTZAKO BILERA

Tokia: Entsaioetako lokala
Entsaioetako eguna eta ordua erabakitzeko

Urriak 17 igande

4,30: FUTBOLA

Kilimon-Intxaurren
Ospas-gain zelaian

Urriak 31 igandea

4,30: FUTBOLA

Kilimon-Baskonia
Ospas-gain zelaian

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitor Etxeberria, Aingeru Gallastegi, Mikel Garate, Haritz Goikoetxea, Iraide Loiola, Maria Longarte, Ziertza Urbieta, Alaitz Vives, Garbiñe Zabala.



MENDAROKO UDALAREN
DIRULAGUNTZAREKIN
ARGITARATUA

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR

ORMOLA

TABERNA

AZPILGOETA, 8 75 50 16 MENDARO

San Migel auzoko jaiak

Igande goizean San Migelera VI. igoera jokatu zen. San Migeleko helmugan infantil kategoriako Javier Garcia sartu zen lehena (7'15). Jubenil eta afizionatuen kategorian Raul Fernandez sartu zen lehena 13'33ko denborarekin. Lehen urteko kadeteetan Josu Unzueta izan zen lehena (14'55), bigarren urteko kadeetan Pedro Cerviño (13'56) eta alebinetan Jon Elorza (8,29).



San Migel jaiak aparteko giroan pasa dituztela esan digute bertokoek. Ez da gutxiagorako kontutan izanda antolatu duten egitarau zabala. Argazkian San Migel egunari "adio" esaten *Egan* taldearen musika taldearekin.

JAI EGITARAUA

Urriak 2 larunbata

16,00: Umeentzako jolasak
Ondoren txokolate jana umeentzat

22,00: Bertso jaialdia:
Egaña, Peñagarikano, Ziarda, Lizaso, German eta Mañukorta.

Ondoren: Erromeria
1,00: Txekorraren zozketa.

Urriak 3 igandea

11,30: Meza
Ondoren: Pelota partiduak
14,30: Anaiarteko bazkaria
20,00: Txokolatada

karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak
San Bartolome 18
☎ 74 08 49

Iraegui
ERROTULAZIOA
☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

**BOUTIQUE
DEL PAN**
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

"Errosaixo kalean izugarritzko jaixak egiten zian"

Iaz hasi eta osasunak huts egin arte Maite Vallejo elgoibartarrak Salbea erreztatzeko prest dagoela esan digu. Errosarixoa kalean jaio

eta jai hauek berarentzat zerbait berezi direla dio. Diotenez Errosaixo kalea Elgoibarko kalerik ospetsuenetariko bat izan da.

-Noiztik dator salbea abestearen ohitura?

-Elgoibar mailan, ez da ohitura zahar bat, bai beste herrialde batzuetan ostera. Ni joan zen urtean hasi nintzen, ia salbea erreztatzeko prest nengoen galdetu zidate-nean. Nik baietz esan nuen, eta gaur egun ohitura zahar bat ez bada ere, beranduago datozenentzat ohitura bilakatu-ko da.

-Zer nolako asmoarekin, zer da eskatzen dena otoitz hauen bitartez?

-Salbea Amabirjinaren Agur bat da, aingeruak Amabirjinari egin zion Agur bat, beraz, hortik dator Salbe izena.

Otoitz honen helburua, Errosaixo kaleko jendeagatik egiten den eskaera litzateke, gero herri guztiko familientatik, sendi guztiengatik.

-Zu Errosaixo kalekoa zara. Zer suposatzen dute jai hauek zuretzat?

-Ni bertan jaioa naiz, nire seme alaba eta bilobak bezala, beraz niretzako esanahi handia



"Nire esperientziaren arabera, motibaziorik handiena fedea da."

dute. Errosaixo kalea, diotenez, Elgoibarko kalerik ospetsuenetariko bat zen. Izugarritzko jaiak antolatzen zituzten eta niretzako ere zerbait berezi dira.

-Zer da Elgoibarko herria eta elgoibartarroi falta zaigun gauzarik garrantzitsua?

-Lehendabizi, ilusio eta poztasunarekin bizi ahal izateko, motibazio- ren bat bilatu behar da. Niretzako, nire espe-

rirentziaren arabera, motibaziorik handiena fedea da. Beraz, falta den gauzrik garrantzitsua fedea litzateke. Fede txepela dago. Bizitza honetan arau batzuen arabera bizi gara, tradizioz bezala bizi ditugunak, baina zorientasuna ematen duen fede horren falta nabari da.

Fede eza gazte eta hain gazte ez direnen artean ikusten da eta

hortik dator askok dioten "ir tirando" esaera hori.

-Zer nolako aktibitateak burutzen dituzu herri mailan?

-"Espirituaren berrikuntza" deritzon talde baten barne nago. 9 urte daramagu elkarrekin eta era askotako lana egin daitekeela ikusten dugu. Adibide gisa drogaren kasua da. Garrantzitsua bertan ez erortzea litzateke eta hori lortzeko guk aldarrikatzen duguna, bizitzari, gaur egun galduta dauden balore batzuk ezartzea da. Taldean bultzatzen duguna maitasuna eta otoitza da. Gure ustez otoitzaren bitartez maitasuna eta abar luze bat dator.

San Lazaro erresidentziara ere urtean birritan joaten gara. Sarriago joan nahiko genuke baina ezin gaitzke joan, denok gaude lanpetuta. Urtean behin, mahai handi bat antolatzen dugu. Datorren astean izango da, hain zuzen ere, eta bertan 80 bat lagun elkartuko gara.

Isabel Ansola

Elena Yudego

Yudego farmaziakoa



-Zerk bultzatu zintuen farmazia ikasketak egitera? -Nere aitaren insistentziak batez ere.

-Noiz hasi zinen lanean? -Haseran, bi laborategitan egon nintzen lanean, gero, Legazpiko farmazia batean eta hemen 13 urte daramatzat.

-Medizinak saltzeaz gain zein beste zerbitzu eskaintzen dituzue? -Medikuek agindutako preparatu magistralak, umeentzako gauzak, guk egindako perfumak, tentsioa hartu, analisiak...

-Automedikazioa ala sendagileak agindurikoa? -Sendagileak agindurikoa.

-Jende asko etortzen al da aholku bila sendagilearenean izan gabe? -Bai asko. Guk gauza sinpleak badira ematen ditugu, baina bestela sendagilearengana joateko esaten diegu.

-Guardiak luzeak egiten al dira? -Oso luzeak, farmazia bakoitzak astebeteko guardia egiten dugu eta oso luze egiten da.

-Sendabelarretan sinisten al duzu? -Bai, medizinak ere hasera batean belarrak baitira.

-Etxean jarraitzen al duzu farmaziako ordena hau? -Bai, pertsona oso ordenatua naiz, gehiegi agian.

-Zer gustatzen zaizu egitea denbora librean? -Astean zehar geratzen zaidan gutxian deskantsatzea eta asteburuetan beti ematen dugu umeekin buelta bat.

-Afizio bereziren bat ba al duzu? -Eskiatzea asko gustatzen zait.

-Zein da asko gustatu zaizun liburu bat? -Terenci Moix-en "No me digas que todo fue un sueño".

-Inoiz edukiko al dugu medizinen prospektoa euskaraz irakurtzeko aukerarik? -Oso zaila ikusten dut, laborategi guztiak kanpoan baitaude; hala ere, norbait itzultzeaz arduratuko balitz, posible dela uste dut.

-Aurtengo neguan katarrorik ez harrapatzeko zer aholkatuko zeniguke? -"C" bitamina oso ona da, laranja, limoi edo konprimidoetan.

Belen Arrizabalaga

BERTSOTAN

ZELIBATOA

Doinua: Iparragirre abila dela...

Mundu bakarra ezagutzen dut
ta hamaika erlijio;
sarritan elizgizon askori
zelibatoa dagokio.
Maitasunak adio!
hemen ez du balio,
sufrimenduen promesa!
guztia zuzen kunplitutzea
ez da izango erreza.

Apaiz ta monja sartu ezkerro
ein behar penitentzia
Askok ez ote lukete nahiko
zelibatoa kentzia?
Nere teokrazia:
doktrina bat libria?
ezer inposatu gabe.
eta bakoitza izan dadila
bere kontzientziaren jabe...?

Abel Irizar

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

Ehiza txapelketako emaitzak

Joan den igandez, hilak 26, San Migel auzoan jokatu zen txakurrez lagundutako ehiza txapelketan 19 parte hartzaile izan ziren eta guztira, 30 faisai, 20 eper eta 50 galeper ehizatu ziren. Sailkapenean lehena Patxi Arriola izan zen, bigarrena Mauricio Vicuña eta hirugarrena Aitor Garitagotia. Datorren urriaren 2an, zonaldeko ehiza txapelketa izango da San Migel auzoan.

Tenis eskola martxan

Tenis eskolako kurtso berria hasi da jadanik. Tenis klaseak jaso nahi dituzten 8 eta 13 urte bitarteko haurrek Udaleko Kirol Zerbitzura jo dezakete egutegia eta ordutegiaren berri izateko (Kultur Etxea, tel: 74 21 58). Era berean, Udal Kirol Zerbitzuak urrirako, helduentzako perfektionamendu eta hastapen klaseak antolatuta ditu. Klaseak goizez izango dira Udaleko Tenis pistan.

5 hautagai Mintxetako kafetegirako

Mintxetako kafetegiaren ustiapenerako bost proposamen aurkeztu dira Udaletxean. Bat, Reyes Melladori dagokio eta diru kopurua beranduago zehazteko dago. Bigarrena Jose Manuel Almenarari dagokio eta 50.000 pezetako errenta proposatu du. Esteban Gonzalezek 5.000ko errenta proposatu zuen, Roke Etxabek 20.000koa eta Fernando Eizagirik 40.000koa baina bere alde. Erabakia laster jakinaraziko du Udalak.



Pedro Egaña
"Mintxeta":

"Harrijasotzaile ona izateko asko entrenatu behar da"

-Noiztik zabilta harrijasotzaileak entrenatzen? -Duela 6 urte.

-Entrenatzaile izan aurretik, harriak jasotzen ibili zinen. -Bai. Erretiratu nintzian 40 urtekin, hasi nintzan Mendaroko Salegi entrenatzen.

-Zer moduz moldatzen zinen harriak jasotzen? -Bastante. Etxean askotan animo gitxi ematen ziaten. Laguntasun falta neukan eta azkenerako bakarrik ibiltzen nintzan. Afizio haundixa naukan.

-Non gusturago, entrenatzen ala harriak jasotzen? -Gusturago ibiltzen nintzan lehen. Gero zahartutakoan ba, goguk alde eitzen dizu entrenamenduak eta eitxeko. Baina orain ere gustura nabil.

-Zein harrijasotzaile entrenatzen dituzu? -Mendaroko Salegi eta Javier "Egi"koa. Iloba ere bai, baina gitxiao ibiltzen da, 10 urte dauzka. Gogua haundixa dauka baina oraindik umea da.

-Zertan oinarritzen da entrenamentua? -Astean pare bat aldiz harririk jasotzen, ezibizirik ez dauanian, eta gero, mendira eta gimnasia piska bat egin. Gimnasia asko egin behar da ona izateko, eskaxa izateko ez!



-Apopilo onak al daukazu? -Onak. Bestela bialdu eitzen ditzut nik! Nigana asko etorri dia baina nik ezin segitxu. Egi 17 urtekin hasi zan eta orain 20 ditxu. Hasi eta segitxuan izterra hautsi zuan. Gero saniau zanian hasi zan eta orain ondo dabil.

-Txapelketa baino lehen asko aldatzen al da entrenamentua? -Azkeneko lau egunetan deskantso eitzen dogu. Kanpeonato aurretik harrixa ikutu ere ez eta mendira ere gitxitxuo.

-Herri kirolaren arloan, nola ikusten duzu Elgoibar? -Orain arte ez da laguntasunik egon. Orain Egi dabil hor eta, gauzia asko animatu da. Egik exitua lortzen badu laguntasuna ere etorriko da.

• Adina: 45.

• Bizitzeko, baserria ala kalea?

Baserrixan gustora bizi naiz.

• Asteko egunik onena? Zapatua eta jaixa.

• Gustoko harririk? Zilindrua.

• San Rokeak ala San Bartolomeak?

Bixak.

UDA BERRI
ELGOIBAR

 **XABIER**
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97


EGANA
kotxe konponketak
P. Muguruza 18. ☎ 74 01 98

 **INTERIORES**
CLARA ARRILLAGA
Dekoratzaille-Proiektatzailea
-PROIEKTUAK-ERREFORMAK
-LOKAL KOMERTZIALAK
-ETXEBIZITZAK-ENPRESAK
Tel:74 40 55-74 40 19. Errosario 15

9 futbol partidu jokatuko dira astebukaeran

Astebukaera honetan, urriaren 2an eta 3an, inoiz baino futbol partidu federatu gehiago jokatuko dira Mintxetan eta Lerunen. Izan ere, Lerungo futbol zelaian kanpoko taldeak jokatzeko

ari dira eta Mintxetan etxeko taldeek eta kanpokoek jokatuko dute. Bederatzi partiduen artean, sei, Mintxetan jokatuko dira larunbat eta igandean, eta gainontzeko hiruak Lerunen izango dira.

NOIZ ETA NON PARTIDUAK

MINTXETAN

Urriak 2 larunbata

10,00: S.D. Eibar-Zestua(kadeteak)

12,00: C.D. Elgoibar-Antoniano (neskak)

15,30: C.D. Elgoibar- Zumaiako (jubenilak)

17,30: C.D. Elgoibar-Zestoa (2. errejionala)

19,30: Eibartarrak-Oihartzun (neskak)

Urriak 3 igandea

12,00: Eibartarrak-Arrasate (2. jubnilak)

LERUNEN

Urriak 2 larunbata

10,00: Urki-Bergara

12,00: Urki-Ilintxa

16,00: S.D. Eibar-Athletic Bilbao



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak

- ▷ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▷ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▷ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▷ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▷ Menopausiaren tratamendua

*Guztia hau
Eibarren bertan
urrutirago joan
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR



Errotatxo: drogen prebentziorako elkarte

Errotatxo elkarte duela hiru urte sortu zen, 1990. urtean. Egun 16 kidek osatzen dute elkarte. Dena den, herritar guztiei irekita dago eta edonork har dezake bertan parte. Hiru urte hauetako balantzea guztiz positiboa dela esan digute eta egindako lanaz harro sentitzen direla.

Elkarte gisa gauzatu aurretik, D.E.E. erakundearen baitan zegoen Errotatxo. elkarte hau desgertzean, herri mailako deialdia zabaldu zuten drogen aurkako eta haien prebentziorako elkarte bat sortzeko. Handik, dozena inguruko taldetxoak gorpuztu zen eta Errotatxok lehen urratsak eman zituen horrela. Hasierako taldeari gaiarekin kezkatutako beste lau pertsona gehitu zaizkio azken hiru urte hauetan.

Elgoibarren drogaren arazoari aurre egiteko helburuarekin sortu zen Errotatxo. Lehenik, lan dinamika herriko taldeetan oinarritu zen. Taldeak aztertu ondoren, herri mailan presentzia handia zutela ikusi zuten eta beraz, taldeak indartzea izan zen lehen eginbeharra. Taldeetan oinarrituta, Prebentzioaren jaia deitzen dena sortu zen. Egun honetan, herriko talde guztiak Plaza handian biltzen ditu Errotatxok. Aurten, laugarren prebentzio jaia ospatu da.



Errotatxok antolatutako drogen aurkako giza katea eta globo askaketa.

Prebentzioaren bidetik, drogen munduan sartzeko arriskuan egon daitezkeen taldeak aztertzen dituzte eta horientzako irtenbideak topatzen saiatzen dira.

Errotatxoren ustez, gaur egun oraindik ere, Elgoibarrek droga arazo itzela dauka. Zentzu honetan, gaiarekiko desbinkulatuta edota zertxobait ahaztuta dagoela herriko jendea uste dute.

Errotatxok hainbat ekintza burutzen ditu urtean zehar: udaberriaren Prebentzioaren Astea, abenduan IHESaren eguna, hitzaldiak... Droga kontsumoari buruz, Elgoibarko Udalak agindutako inkesta bateko datuak kaleratu zituen Errotatxok duela hilabete batzuk. Eskolekin ere, egiten dute lana, hitzaldiak emanaz eta gazteekin prebentziorako bideak urratuz.

IHESari dagokionean, Bilboko T-4 taldearen baitan daude. Martxoan T-4 taldekoekin ikastaro bat egin zuten. Herriko 12 pertsonak hartu zuten parte ikastaroan eta esperientzia polita bezain gogorra izan zela adierazi digute.

Datozen hilabetei begira, "Askagintza" elkartearekin batera, gazteekin zerbait egitekotan dabilta Errotatxokoak.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1990

Kide kopurua: 16

Arduraduna: Ez dago

Iharduera: Drogomenpekotasunen prebentzioa

Egoitza: Ubitarte 4 behea



MASUMIS

Ondo pasa jaiak! **MODAK**

Nafarroa enparantza ☎ 74 35 83

Errosario kaleko jaiak

Errosaixo kaleko jaiak atarian ditugu eta, jakin dugunez, bertokoak demaseko jai dotoreak izaten ziren. Egun, garai hartako haunditasunik ez badute ere, jai herrikoiak dira oso, eta Amabirjinak du protagonismorik handiena.



AZKUE

1587.eko urriaren 18an, Martin de Garibay praileak, Santo Domingo lagundikoak, San Bartolome Olasoko parrokian Errosario Amabirjinaren kofradia sortu zuen. Kofradiako kontu liburuak diotenez, urriko lehen igandean, herriko kaleetan zehar prozesioa egiten zuten Errosario Amabirjinaren irudia bizkar gainean zeramatela. Liburuak dio 1.616 urtean 7 erreal eman zitzaizkiola "pifanoa eta danborila" jo zituena.

Prozesioan 12 dantzarik parte hartu ohi zuten, Markinan alokatutako txintzarriak hanketan jarrita dantza egiten zutelarik. Hauekin batera, danbolin jolea, kofradiaren bandera zeramana eta bizkar gainean Amabirjinaren irudia zeramatzen lau kofradeak joaten ziren.

Erreseina hau bukatu aurretik 1919. urtean ospatu ziren Errosario kaleko jaietaz hitz egingo dugu. Urte horretan Errosaixo kalekoak San Bartolome jaiak hobetzen saiatu ziren. Jaiak iraun zuten 8 egunetan zehar Estatu independente aldarrikatu zuten Errosario kalea eta edozein lan eta

betebehar burutuko zutela onartu zuten. Herriko alkate zen Antonio Arrillagak guzti hau egiteko bai-mena eman zuen.

Garaiko pertsonaia herrikoi eta umoretsuenak aukeratu zituzten: presidenteak, bozeramaleak, kaleko erregina, errege-erreginaren zerbitzaria, ohorezko damatxoak, gobernadore militarra, gobernadore zibila, Alkatea, zinegotziak, udaltzainak, erreginaren goardia partikularra eta zaldun taldea.

Dianak, berbenak, erraldoi eta buruhandiak, kalejirak, Meza Nagusia musika banda eta guzti, kontzertua eta zezen korrida ospatu ziren. Matadore lanak Antonio Urreta "Kimiku" ezagunak burutu zituen eta "banderilero" Prudentzio Mercero eta Migel Etxeberria izan ziren. Ekintza hauetaz gain, gau batean Deba ibaian itsas berbena izugarria izan zen eta Aniceto Epelde jaunak suzko erroberak egin zituen egun horretarako. Jaietan familia hauek hartu zuten parte: "Rusotarrak", "Kakumetarrak", "Olazarragatarrak", "Porrutarra", "Polondarrak", "Aldaitarrak"...

Koldo Lizarralde

Untzon taberna

● KAZUELATXOAK ● OGITARTEKOAK ● EGUNEKO MENUA ● KARTARA

Ondo pasa Jaiak !!

Errosario 19. Tel 74 00 35

Gabi

Jatetxea

Nafarroa plaza ☎ 74 12 30

Zarpi

TABERNA

Pintxoak
Olagarroa
Kazuelatxoak

Ondo pasa Errosario kaleko jaiak!
Errosario, 31. Tel. 74 19 13 ELGOIBAR

DORI Urdaitegia

*Zatozte eta ondo pasa gure
kaleko jaiak!*

Errosario 21. ELGOIBAR

2 Larunbata

9,00 ZONALDEKO EHIZA
TXAPELKETA

Tokia: San Migel auzoa
Antolatzailea: La Union elkartea

16,00 EILT- ren BILERA
(Elgoibarko irratizaleen lagun taldea)
Tokia: Kultur etxea

5 Asteartea

19,00 AZTERKETA SOZIOLIN-
GUISTIKOAREN AURKEZPENA
Hizlaria: Kike Amunarriz
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Euskera Batzordea
eta Elgoibarko Izarra

8 Ostirala

17,00- 21,00 ERAKUSKETA
Urki eta Egur lantegien erakusketa
Tokia: Kultur Etxea
Urriaren 24ra bitartean

ERROSARIO KALEKO JAI EGITARAUA

Urriak 3 igandea

5,30: Jaien hasera txaflligekin.
6,00: Errosarioa San Bartolome elizan
abesbatzak abestuta.

Urriak 4 eta Urriak 5

5,30: Xake lehiaketa. Modalitatea, 10
minutu jokalarri bakoitzeko.

Urriak 6 asteazkena BEZPERA

5,30: Txaflligu botatzea.
6,00: Erraldoi eta buruhaundiak.
8,30: Errosarioko Amabirjinari otoitza
eta hildakoen aldeko Salbea.

Urriak 7 osteguna ERROSARIOKO AMABIRJINAREN EGUNA

5,30: Txaflligu botatzea
6,00: Erraldoi eta buruhaundiak
7,00: Mus errebantxa kalean.
"Gorostiza tabernako mus txapelketa".
8 hamarrekotako 5 jokura. Josetxo
Pitxirri eta Pako Santuarian, Martin II
eta Rodriguez-en aurka.
8,00- 9,30: Trikitilari eskolakoen
eskutik, dantzaldia. Tarteana, Dakinta.

Urriak 8 ostirala TXIKI EGUNA

5,30: Haurrentzako jokuak:
Itsulapikoak, zaku lasterketa eta patin
lasterketa.
8,15: *Itxaropena* abesbatzaren
kontzertua.
9,15: Afari herrikoia kalean, "Duo



Plaentxi" eta Dakintarekin. Izena
ematea Untzon eta Gorostizan.

Urriak 9 larunbata

12,00: Plazako frontoian, Lagunak
pilota elkarteak antolatuta, infantil
mailako esku pilota partiduak.
Ondoren, "Elosuko Reyes Azkoitia
Andrea" pilota txapelketa: Fernando
Uriarte, "Olinpik"en aurka.

Urriak 10 igandea

12,30: San Bartolome elizan, Errosario
kalean hildakoen aldeko meza.
Jarraian: Errosarioko Amabirjinaren
parean kaleko nagusiei omenaldia.
Ohizko aurrekua dantzatuko da.
Ondoren: Lunch-a omenduei.
Jaiak bukatzeko: Txistularien Udala
Bandak "Agur Jaunak" joko du.

IRAILEAN

JAIOTAKOAK

Maria Galindo Padilla

Irailak 9

Oihana Azpiazu Laka

Irailak 6

Joseba Lariz Iriondo

Irailak 8

Iker Arrieta Mendizabal

Irailak 19

Kaiet Arce Gala

Irailak 22

HILDAKOAK

Josefa Garate Kortaberria
irailak 5

Pedro Urain Mendikute
irailak 9 (31 urte)

Jose Yudego Guilarte
irailak 9 (86 urte)

Sabino Perea Badillo
irailak 13 (70 urte)

Andres Urain Ibarluzea
irailak 15 (61 urte)

EZKONDUAK

Agurtzane Larrañaga eta
Endika Pintor
(Irailak 4)

Gotzon Arriola Etxaniz eta
Montserrat Rezola Perello
(Irailak 18)

Jose Mari Kortaberria Azkue
eta Edurne Bilbao
(Irailak 25)

Etxebizitzak

Mutil formala gela bila dabil.
Lo egin eta arropa garbitu.
Zentrikoa. Tratu familiarra.
Informazioa Jauregi.
Inprentan. Felipe.

Hiru mutil pisu bila dabilta.
Lo egin eta arropa garbitu.
Zentrikoa.
Tel: 74 13 29 Felipe

Etxe bat salduko nuke. 100
m2 eta gela guztiak kanpora
ematen dute. Urasandin.
74 42 65 Amaia

Lana

Fisika eta matematikako klase
partikularrak ematen ditut.
Euskeraz eta erderaz.
74 23 01 Jokin

Marrazketa Teknikoan arazo-
ak baldin badituzu klase parti-
kularrak emateko prest nago.
EFP eta BTIko ikasleei
Deitu 12:30etatik 2:30etara
74 04 69 zenbakira

O.H.O.ko klase partikularrak
emateko prest nago. Euskeraz
badakit.
Ainhoa 74 36 39 / 74 05 33

Ingeniero industrialak mate-
matika, fisika eta kimikako
klaseak ematen ditu BUP,
COU eta FP. Gaztelaniaz.
74 13 11 Javier

Etxeko lanak egin edo
persona nagusiak zaintzeko
prest nago. **74 05 34**

Salerosketak

Bitrina bat saltzen dut, perfil
eta urre brillodun hertzarekin.
Neurriak: 190 x 110 x 40
Deitu: 74 28 32

Garaje itxi bat saltzen dut.
Santa Ana 46an. 14 m2.
Tel. 74 28 32

Wind-surfeko tabla bat
saltzen dut. Estrenatu gabe.
prezio interesgarria.
74 03 92 eguardian
74 04 65 gauzez. Lorea.

SEAT PANDA 40 bat saltzen
dut. SS-W matrikula.
74 15 22 Itziar

SEAT MARBELLA SS AL
salgai. 30.000 km.
Deitu 78 70 30

Automodelismoko kotxea (4
WD KYOSHO) eta emisora
(SANWA, oso berria)saltzen
dut.. Erregaluz: 3 bateria,
errobera joko bat, bi
kargadore (bat motela eta
bestea azkarra), e.a....
74 03 92 eguardian. 74 04 65
gauzez. Dani.

Musika ekipo bat saltzen dut.
Irratia, ekualizadorea, platina
bat eta tokadiskoa. 25.000 pta.
Deitu 74 03 55 Iñigo

Pastor aleman arrazako txakur
kumeak saltzen ditut.
Pedegree . Jatorri
ezinhobekoak.
74 41 32 Fernando

Kontaktuak

Donostian pisua konpartitzeko
neskak behar dira.
Deitu 74 08 72

SEIKO markako erloju bat
galdu dut King-kongetik
Lojantzira bitartean hilaren
23an
Mesedez deitu, 74 12 23


DEITU EZAZU HOTZA HELDU AURRETIK

LEIHOETAKO

ZIRRIKITUETATIK:

- hotza
- haizea
- hautsa
- zarata
- polena

SARTZEN BAZAIZU...



ALTZAIRU
INOXIDABLEZKO
BURLETEAK

*Altzairu inoxidablezko
burleteak betirako dituzue.*

- ▲ Edozein ate edo
leihotarako
- ▲ Leihoak aldatzea baino
10 aldiz merkeago
- ▲ Berogailu gastuetan
%30 gutxiago
- ▲ Leihoak ere konpontzen
ditugu

**OBRARIK GABEKO
INSTALAZIO AZKARRA**

glas control


Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

74 30 94 - 74 43 54



MCCANN



OPEL GAMA OSOA ANALSAN

Opel Ordezkarri Ofiziala Deba eta Urola Bailaratarako.

OPEL 

Z U R E Z A I N G A U D E

ANALSA

Olaso, 25
Tel. 74 40 12
ELGOIBAR

Otaola ibilbidea, 27
Tel. 70 08 41
EIBAR

Plaza Auzoa, z/g
Tel. 75 50 72
MENDARO

OPEL ORDEZKARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAGATIK.